



Iparrorratzeko puntuak

—
ALTERNATIBA SOZIALISTA
BATERANTZ

ERIK OLIN WRIGHT





Iparrorratzeko puntuak

ALTERNATIBA SOZIALISTA BATERANTZ



INSPIRAZIOAK
S A I L A

02



Iratzar Fundazioa

Zuatzu Enpresa parkea
Zuihatzu kalea, Easo Eraikina, 4 behea.
20018 Donostia (Euskal Herria)
fundazioa@iratzar.net
www.iratzar.eus

Diseinua: Unai Bergara Monasterio

Maketazioa: Aitziber Ruiz Alvarez

Inprimaketa: Gertu inprimategia (Oñati)

Lege Gordailua: SS-316-2019



Sarrera

“Uste dut nire nire saiakera tematia tradizio marxista suspertzeko eta justizia sozialarentzat eta egungo eraldaketa sozialarentzat garrantzitsuagoa izateko, oinarritzen dela munduaren benetako funtzionamenduaren ulermen zientifiko onargarri batean. Edonola, ingurune sozial batean txertatuta egon gabe, non ideia horiek eztabaidatu ziren eta era egokian zein nahasian mugimendu sozialekin lotu diren, inoiz ezingo nituzke horrelako ideia berezi multzo hori jarraitu”.

ERIK OLIN WRIGHT

2019ko urtarrilaren 18a

Goiko hitzak Erik Olin Wright beraren blog pertsonalean idatzitako azken aurreko mezutik hartutakoak dira, haren heriotza baino bost egun lehena-gokoak, hain zuzen ere. Nekez laburbildu daiteke errazagoa eta argiago Berkeley-n jaiotako soziologo marxista honen ekarpen intelektuala eta soziala. Teoria eta praktika.

Izan ere, Wiscoussin-Madison Unibertsitateko irakaslea eta American Sociological Association-eko presidentea izan zenak hitzotan dioen moduan, marxismoaren irakurketa eraberritua burutzea izan da bere lan akademi-koaren zioa. Marxen lana hartu eta haren kontzeptu zein hausnarketa nagusien inguruan aritu zen urteetan Erik Olin Wright. Edonola, bere helburua ez zen inoiz izan Marxen obra bere horretan zalantzan jartzea, edota ariketa akademiko eta intelektual hutsean murgiltzea. Aitzitik, haren lanaren xedea zen marxismoaren hainbat funtsezko ideia eta kontzeptu hautatu, egungo egoeran eta gizartean horiek izan dezaketen ezaugarritzea iker-tu eta, jakina, eraldaketa sozialerako baliagarriak izan zitezkeen ondorioak ateratzea.

Zoritxarrez, zerumuga sozialista helburu dugun ezkerren artean beti izan da halako jarrerai eraso egin nahi izan dienik. Ortodoxia gaizki ulertu baten aitzakian, Marx, Engels edo Leninen lan erraldoien defentsa testual eta itsua egin ohi izan dute batzuk. Marxek bere garaian salatu zuen bezala, Marx bera baino marxistagoak bilakatuz. Baina bitartean, munduaketa sistema kapitalistak eraldatzen jarraitzen du eta langileok eta ezkerreko mugimenduok, alde edo moldez, zapalkuntzari eta injustizia sozialei aurre egin behar izan diogu, batzuetan arrakasta gehiagorekin eta beste batzuetan gutxiagorekin. Olin Wright-ek ez zion beldurrik izan heterodoxiari, tradizio marxista beraren ikerketa autokritikoari, besteak beste, jakin bazekielako bere helburua zela aipatu ezkerreko mugimenduentzat eta klase borroka-arentzat aberasgarri izan zitezkeen ekarpenak egitea. Akademiaren talaiatik idatzita ere, testuei baino, balizko ondorio praktikoei ematen ziolako garrantzia, lehentasuna.

KLASE SOZIALEN AZTERKETA

Sozialismoa posizio zientifikoa baino, moralak zela defendatuko zuen, esplotazioaren et berdintasun ezaren kontrakoa. Eta hortik abiatuta, klasearen zentraltasuna aldarrikatzen zuen. Izan ere, klase sozialen gaineko hausnarketa izan zen, ezbairik gabe, bere ikerketarik ezagunetarikoa. Olin Wright-entzat Marxen klaseen inguruko irakurketa zorrotzegia zen eta, beraz, egungo kapitalismoan ematen den klase egitura azaltzeko eredu zehaztuago bat proposatu zuen.

Esplotazioaren oinarrian langile klaseak klase kapitalistarentzat egin behar duen lana dago, hots, esku lana halabeharrez saldu behar izatea. Jakina, Olin Wright-ek ez du hori zalantzan jarriko, baina langile klasearen barnean ematen diren ezberdintasunak eta aniztasunak azpimarratuko ditu. Ikerketa sakon baten ostean, ebatsi zuen langileen kualifikazioak eta lan antolaketan okupatzen duten tokiak eragin ikaragarria dutela. Haren ustez, hor topa daiteke klase ertainaren izaeraren zenbait arrazoi eta ezaugarri.

Esan dugunez, halako azterketa teorikoek praktikan izan zezaketen ondorioek kezkatzen zuten AEBko soziologo marxista zena. Izan ere, klase sozialen ikuspegi anitzagoak ondorio zuzenak ditu klase kontzientzian eta horrek zuzenean eragiten du ere langile mota ezberdinen praxian. Haren aburuz, klase ertainak interes kontrajarriak erakutsi ditzake une ezberdi-

netan eta, besteak beste, aliantzen bitartez lortu beharko da kapitalarenak baino, langile klase osoaren interesak defendatzea. Ikertu, hausnartu eta ondorio praktikoak atera, horra hor bere lanaren ezaugarria.

KLASEA, KRISIA ETA ESTATUA

Klase egiturarekin bezala, auzitan jarri zituen, edo gutxienez eztabaida gai, tradizio marxistarentzat ere oso garrantzitsuak diren krisiari eta estatuari buruzko teoriak.

Krisi kapitalistaren kasuan, azaldu zuen kapitalak etengabeko akumulaziorako dituen zailtasunak ezin direla era homogeneo eta arrazoi bakar baten bitartez azaldu. Haatik, sistema kapitalista beraren garapenak akumulaziorako oztopo ezberdinak sortzen ditu eta, jakina, kapitala beti saiaturiko da oztopo ezberdin horiek banan-banan gainditzen. Historiak jada erakutsi digun bezala, nekez pentsatu daiteke lege historiko eta bakar baten ondorioz sistema kapitalistaren krisi orokor eta definitiboa etorriko denik. Edonola, Olin Wright-ek argi azaldu zuen ere kapitalaren etengabeko moldaketa horiek sistemaren kontraesan berriak sortzen zituztela eta, horiekin, klase borrokarako aukera berriak.

Kapitalaren mesedetan garatzen ziren moldaketa horietan estatu kapitalistak betetzen zuen funtzioa ere luze eta zabal ikertu zuen. Jakina, marxismoarentzat estatua, oro har, sistema kapitalistaren zerbitzuan aritzen den egitura administratibo eta burokratikoa da. Marxek horrela ezaugarritu zuen eta Lenin ere norabide berean teorizatua zuen. Azken horrek, ordea, iraultzaren aurretik pentsatzen zuen posible izango zela estatu kapitalista eta bere egitura burokratikoa desegin eta gizarte sozialista baten alde modu eraginkorrean arituko zen antolakuntza politiko berria sortzea. Iraultza pasa ahala, ordea, Lenin bera ohartu zen hau ez zela horrela izaten ari eta burokratizazioaren zantzuak salatu zituen. Guzti honen harira, Olin Wright-ek Weberren ikerketatik tiraka, antolakuntza eredua berak, eta ez estatuak, burokrazia sortzen duela gogoratuko du. Eta bere obraren helburua beti praktikoa izan nahi duenez, burokratizazio honi aurre egiteko langilegoaren gaitasun politikoa uneoro areagotzearen beharra aldarrikatuko du. Laburbilduz, desjabetze politikoa bada burokraziaren garapena dakarrena eta, horrekin batera, estatuaren eta demokraziaren pribatizazioa kapitalaren mesedetan jartzea, berebiziko garrantzia izango du langileen gaitasun

politikoa garatzeak eta demokratizazio prozesuak erraztuko dituzten tresna politikoak bultzatzeak.

UTOPIA ERREALAK

Hasierako aipuan irakurri bezala, Olin Wright-ek garrantzi berezia ematen zion mugimendu sozialei eta langileen antolaketa eta borrokei. Aipatu ditugun eztabaida teoriko horiek jendarte sozialista bat eraikitzea bazuten helburu, eguneroko borroka eta praktika errealetan frogatu behar ziren. Utopia eta errealtatearen artean dagoen tentsioa azpimarratu eta bere bizitzaren bigarren partean, bereziki, “utopia errealak” ikertzeari ekin zion.

Horretarako propioki zuzendutako azterketa eta lan ezberdinak garatu zituen urteetan zehar eta ezaguna da horien sintesi moduan erdaraz ere argitaratutako “Construyendo utopías reales” liburua. Jakina, hau ere kontraesanik gabeko teoria gogoko dutenei ez zitzaion asko gustatuko, izan ere, utopia errealean atzean ageri diren tentsioak eta kontraesanak ez baitituzte gogoko.

Dena den, Erik Olin Wighrt-ek ondorio praktikoak helburu zituen neurrian, aurrera egin zuen bere asmoarekin. Munduan zehar garatzen ari ziren hamaika esperientzi eraldatzaile ikertu, azaldu eta eztabaidan jarri zituen beste lankide askoren laguntzaz. Horietako bat, hain zuzen ere, Arrasateko mugimendu kooperatiboa izan zen. Euskal Herrira etorri eta euskal kooperatibismoa zuzenean ezagutzeko aukera izan zuen. Eta bai, aurreko gaietan ikusi dugunez, gurean ere, azterketa zorrotza egin eta bertakoekin hitz egin ostean, ondorioztatutako ahulgune eta indarguneak azaldu zizkigun. Beti jarrera eraikitzaile bera: gauzei ertz edo ikuspegi ezberdin eta askotarikoe-tatik so egin, baina beti helburu bat eta bakarra: eraldaketa sozialean eta langileria-aren ahalduntzean aurrera egitea.

Aipatu Construyendo utopias reales liburuan, Marxekin bat egiten zuen, eredu alternatiboetarako eredu detailatuak fantasia ariketa ankerrak direla-koan (Olin Wright, 2014:8). Horregatik, bizi garen munduari alternatiba as-ka-tzaileak inspiratzea zen egin eta kordinatu zuen lan erraldoiaren funtsa.

Iratzar Fundazioan, zein eta Inspirazioak izena jarri diogu halako ekarpe-nak aztertze-ko gogoetari. Laclausen inguruko gogoeta kolektiboaz abiatu genuen gogoeta horien gauzape- n hedapen idatzia , euskaraz, (<http://iratzar>.

eus/eu/2-albisteak/153-argitalpen-berria-hegemonia-artikulazioa-eta-populismoa-laclauren-ekarpenak-eta-euskal-herria) eta Garcia-Linerarekin jarraitu genuen, gaztelaniaz Txalaparta Argitaletxearekin batera (<https://www.txalaparta.eus/eu/liburuak/democracia-estado-revolucion>). Erik Olin Wright aukeratu dugu ahalegin honen hirugarren urratserako, Heriok eraman berri duelarik, inspirazio ekarpenak jartzen dizkigulako mahaiaren gainean, hala koen komenigarritasuna gero eta nabarmenagoa delarik. Izan ere, behin eta berriro esperimentatzeko deia egiten digu Olin Wrightek, utopia egingarriak asmatzea errealtate bilakatzeko ezinbesteko ekarpena delakoan.

IPARRORRATZEKO PUNTUAK. ALTERNATIBA SOZIALISTA BATERANTZ

Euskal Herrira etorri bazen ere, orain artean ez dugu aukerarik izan bere lan bat bera ere euskaraz irakurtzeko. Horretara dator Iratzar fundazioaren ekimen hau. Eskutan duzun lana Erik Olin Wright-ek idatzitako eta euskarara itzultitako lehen lana da.

“Iparrorratzeko puntuak. Alternatiba sozialista baterantz” izeneko artikulua interesgarria itzultzea izan da gure hautua. Idazkiaren sarreran dioen moduan, lanaren helburua da kapitalismoari aurre egiteko alternatibentzako marko bat eskaintzea. Zinez uste dugu erabat aberatsa eta baliogarria dela haren ekarpena eta lan honetan eskaintzen digun markoa.

Ez dugu uste merezi duenik hemen edukia aurreratzetik. Gure gomendioa da, kasu honetan, bere lana zuzenean irakurtzea eta gai bakoitzari zukua ateratzeko duen gaitasunaz gozatzea.

Soilik aipamen bat egin nahi dugu Iratzar fundazioarentzat hain garrantzitsua den eta Erik Olin Wright-ek lan honen izenbururako hautatu zuen iparrorratzaren metaforaren inguruan. Hala dio testuaren une batean: “Leku ezagun batera zuzentzen den bide-orriaren adibidearen ordeztu, aldaketa sozial askatzailearen proiektuak esplorazio baten antz handiagoa izango luke. Mundu ezaguna uzten dugu gida-tresna ezagunak eskutan, zein norabidetan goazen eta abiapuntutik hasita iritsi garen tokirainoko distantzia esaten digutelarik, baina ibilbide osoa esaten digun mapa bat gabe”.

Euskal errepublika sozialista eta feminista eraiki nahi dugunok zerumuga eta iparra garbi dugu. Bestelakoa da ordea hara eramango gaituen bide zeha-

tzik eta garaturik ez dugula inon idatzita. Utopia eta errealtatearen artean dagoen tentsioa utopia errealean islatzen dela diosku Erik Olin Wright-ek. Horiek praktika eta borroka errealak dira, gure askapen nazional eta sozialaren bide zail bezain ederrean ere topa ditzakegunak. Eta tentsio eta kontraesan bat aurkituko dugun bakoitzean, eskaintzen digun gida-tresna eta iparrorratz sozialista, ezbairik gabe, funtsezkoa suerta dakiguke.

Erik Olin Wright-en lana inspirazio iturri eta gida-tresna paregabea da. Gutako bakoitzari dagokigu haren lana eta ekarpenak irakurtzea, hausnartzea, berak egingo lukeen moduan barneratzea edota zalantzan jartzea, ondorioak ateratzea eta, bereziki, praktikara eramatea. Zalantzarik gabe, azken hori da, eguneroko eraldaketa sozialean sakontzea, Erik Olin Wright-i egin diezaiokegun omenaldirik hoberena.

Azkenik eskerrak eman nahi dizkiogu lan hau argitaratzea posible egin duten guztiei. Kai Saez de Egilaz-i ideia proposatu eta testua hautatzeagatik, Traficantes de Sueños-i haren eskuetan zeuden autore eskubideak eskaintzeagatik eta, nola ez, Erik Olin Wright-en lana euskaratu duen pertsonari, militantzia politiko eta sozialarengatik musutruk itzuli duen horri. Hi heu ere bikain, teoria eta praktika!

Artikuloak

ERIK OLIN WRIGHT

Iparrorratzeko puntuak

Alternatiba sozialista baterantz

Sozialismoa izan da hogeigarren mendean kapitalismoaren alternatibak amesteko eta borroka antikapitalista zuzentzeko ardatz ideologiko nagusia, eredu sozialista bat ezartzea berehalako helburua ez izan arren. Nahiz eta sozialismoari historikoki lotutako konponbide instituzionalak gaur egun erratutzat jo agindutakoa betetzeko, ohiko kritika sozialista askok inoiz baino egokiagoak dirudite: muturreko desberdintasun ekonomikoak eta enplegurako ziurgabetasuna areagotu egin dira; korporazio erraldoiek agintzen dute komunikabideetan eta kultur sorkuntzan; politika, kapitalista handien gero eta menpekoagoa da eta beharrean daudenekiko gero eta ajolagabeagoa. Kapitalismoaren alternatiba erreal baten beharra inoiz baino handiagoa da.

Saiakera honekin, kapitalismoari aurre egiteko alternatibentzako marko bat proposatzea da nire helburua, kontuan hartuz bai “sozialismo” hitzak eta bai “demokrazia sozial”-ak biek barneratzen dutela sozial adiera¹. Gaur egungo testuinguruan, biak erabiliko ditut kapitalismoaren aurreko alternatiba berdinazale eta demokratikoen aukeren barruan. Sozial hitza gizarte osoaren ongizatearekiko konpromiso bati atxikitzen zaio, elite bakar batzuen interes murriztekoaren aldean. Muturreko aldaeretan jabetza soziala eta jabetza pribatua kontrajarri izan dira, baina praktikan jabetza soziala Estatu jabetza izatera mugatu da; beraz, azterketa lanetarako erabilgaitza suertatzen da jabetza soziala adiera. Nik sozial hitza aldarrikatuko dut, kapitalismoarekiko zein honen kontrako erantzun Estatuazale hutsarekiko desberdintzen diren printzipio eta ikuspegi multzo bati atxikiz. Printzipio hauek gizarte-boterearen zabalkundea deitzen dudana ari dira, botere sozialaz. Sozialismoa gizartearen teoria askatzaileen testuinguru zabalago baten barruan berrasmatzeaz jardungo naiz lehen atalean. Bigarrenetan, kapitalismoaren kritika labur bat egingo dut sozialismoak konpondu nahi dituen arazoak adieraziz. Hirugarrenean, botere eta pribilegio egituren aurrean gobernu alternatiba sinesgarriak eraikitzearen arazoan arakatuko dut. Bertan, gizarte boterearen zabalkundearen ideia zehaztuko dut eta botere horretan oinarritutako sozialismoa izan daitekeena azalduko dut. Laugarren atalean, gizarte sozialismoaren oinarriak barnebiltzen dituen gizarte boterera iristeko bide multzo bat proposatuko dut. Bosgarrenarekin bukatzen da saiakera, eraldaketaren arazoa aztertuz.

1 Ohiko hiztegieta demokrazia soziala jatorri sozialistako ideietan oinarritzen den eta kapitalismoaren baitako mugapenak onartzen dituen proiektu politiko erformatzaile bati atxikitzen zaio; sozialismoa, aldiz, kapitalismoa gainditzeko duen eraldaketa sozial batez ari da. Praktikan, alderdi sozialista askok programa sozialdemokrata dituzte eta alderdi sozialdemokrata batzuk sendotu dira kapitalismoaren kontrako ikuspegi eraldatzaile batean.

I. Gizarte zientzia askatzailearen zereginak

Orokorrean hitz eginda, zapalkuntza bukatzeko eta jendeak bizimodu ona eramanez izateko baldintzak sortuko dituen gizarte-proiekturako beharrezko ezagutza sortzen saiatzen da gizarte-zientzia askatzailea. Zientzia deituta, eta ez gizarte-kritika edo filosofia, munduaren funtzionamenduari gaitasuneko ezagutza zientifiko sistematikoaren garrantzia aitortzen dugu zeregin honetan². Askatzaile deituta, bere helburu moral nagusia adierazten da: zapalkuntza bukatu eta gizarte ongizaterako baldintzak sortzea. Sozial deituta, askapena gizarte-harremanen eraldaketaren menpe dagoen ustea adierazten dugu, eta ez norbanakoaren gogoaren menpe.

Helburua lortzeko gizarte-zientzia askatzaileak hiru zeregin nagusiri egin behar dio aurre: lehenbizi, indarrean dagoen munduaren kritika sistematiko bat landu; bigarren, alternatiba bideragarriak aztertu; eta hirugarren, eraldaketarako oztopo, aukera eta arazoak aztertu. Historiako une desberdinetan horietakoren bat besteak baino premiazkoagoa izan arren, guztiak dira beharrezko askapen teoria batean.

2 Zientzia hitzak aditu batzuen egiaiekiko pribilegiozko aukera adierazi izan du, jende arruntari haien ikuspegia ezartzeko. Baina asmo zientifikoa, batzuetan era horretan erabili arren, nik printzipio guztiz demokratikotzat hartzen dut zientzia, izan ere ideia absolutuaren kontzepzioak ukatzen ditu eta elkarrizketa zabal kontrolatu gabea oinarritzen da, okerrak zuzenduz ezagutzan aurreratzeko.

DIAGNOSTIKOA ETA KRITIKA

Gizarte zientzia askatzaile baten hasierako lana ez da bakarrik munduan sufrimendua eta desberdintasunak daudela erakustea bakarrik, baizik eta horien jatorria indarrean dauden erakunde eta gizarte-egituren ezaugarri berezietan datzala frogatzea, eta erakustea nola kaltetzen duten jendea modu sistematikoan erakustea. Lehenbiziko lana, beraz, kaltea sortzen duten prozesu horien kritika eta diagnostikoa egitea da.

Hori izaten da gizarte-zientzia askatzailearen alderik sistematiko eta garatuena. Adibidez, feminismoaren kasuan, testu askotan azaltzen da indarrean dauden erakunde eta gizarte harremanek nola sortzen dituzten emakumeenganako zapalkuntza mota desberdinak. Ikerketa horien helburua zera izan ohi da, genero desberdintasunak berezkoak ez direla erakustea, gizarte prozesuen ondorio baizik. Lan merkatuaren ikerketek etengabe aipatzen dute laneko sexuagatiko bereizketa, ebaluazio sistemetan emakumeen ezaugarri gisa hartzen diren balioen gutxiespena, mailaz igotzeko bazterketak, ama diren emakume langileei desabantailak sortzen dizkieten erakunde arauak, eta halakoak. Kultur ikerketa feministek agerian utzi dute komunikabideetako, hezkuntzako, literaturgintzako jarduera ugarik genero identitate eta estereotipoak indartu ohi dituzten moduak. Estatuari buruzko azterketa feministek, estatu-egitura politikoek emakumeen menpekotasuna eta genero-desberdintasun moduak sistematikoki nola sustraitu dituzten aztertu dute. Antzerakoak erakutsi daitezke langile mugimenduarien tradizioari, arraza bazterketaren teoriari edo muturreko ekologismoari lotutako ikerketa enpirikoetan.

Diagnostikoak eta kritikak justizia soziala eta araudien teoriarekin dute zerikusia. Halako ordena sozialak kalte egiten duela esateak azterketan epai moral bat barneratzea dakar. Beraz, teoria askatzaile bakoitzaren baitan dago justiziari buruzko teoria bat: gizarte bat justutzat hartzeko erakundeek bete beharreko baldintzei buruzko ideia bat. Kapitalismoaren kritikaren azpian datzan araudien teoria aztertzeak saiakera honen gaia gainditzeko du; baina, labur esanda, ondorioztatzen den azterketa justiziari buruzko ideia errotiko berdinzale eta demokratikoan oinarritzen da, eta bi arau orokorretan zehatzago esateko: justizia sozialari buruzko baldintzei atxikia bata, justizia politikorako baldintzei lotua bestea:

- **Justizia soziala:** gizarte justu batean guztiek dute aukera bizimodu on bat eramateko beharrezkoak diren bitarteko material eta sozialetarako.

- **Justizia politikoa:** gizarte politikoki justu batean guztiek ahalmen berdina dute etorkizunean orokorrean eragiten duten baldintza eta erabakien kontrol publikoan parte hartzeko; esan nahi da berdintasun politikoa eta botere publiko demokratikoa oinarritzkoak direla.

Arau biak batuta, proposatzen dena da demokrazia mailan sakondu eta eragiteko ahalmen zabalagoa duen gizarte bat, errotiko berdintasun material eta soziala oinarritzat hartuta. Arazoa, jakina, oinarriok nola bidera daitezkeen erakustean datza.

ALTERNATIBEN GARAPENA

Gizarte-zientzia askatzailearen bigarren zeregina da indarrean dauden erakunde eta gizarte egituren aurrean alternatiben teoria koherente eta sinesgarria garatzea, haiek sortzen duten kaltea desagerrarazi edo gutxienez nabarmen murrizteko ahalmenarekin. Alternatibak hiru irizpide desberdinen arabera azaldu eta ebaluatu daitezke: nahia, bideragarritasuna eta egingarritasuna. Hierarkia moduko baten arabera sailkatzen dira: alternatiba desiratuak ez dira beti bideragarriak, eta alternatiba bideragarriak ez dira beti egingarriak. Bideragarri edo egingarri izan daitezkeen kontutan hartu gabe alternatiba desiragarrietan sakontzea, teoria sozial utopikoen eta araudien filosofia politikoaren zati handi baten arloa da. Erakundeek ikuspegitik eztabaida hauek oso ahulak dira, indarra oinarri abstraktuen aldarrikapenean jartzen delarik egikaritze errealean baino. Adibidez, komunismoak aldarrikatzen duen gizartean, bakoitzari bere beharren arabera eta bakoitzarengandik bere gaitasunaren arabera aritzea proposatzen duen marxismoaren esakerak, ez du ezer esaten hori egikaritu ahal izateko behar den erakundetzearen inguruan. Justiziari buruzko teoria liberalek antzera aurkeztzen dituzte gizarte justu bateko erakundeek jaso beharko lituzketen oinarriak, oinarriok aldarrikatzen dutena bere horretan praktikara eramateko behar diren egitura ja-sangarri eta sendoak eraiki ote daitezkeen zehaztu gabe³. Nahiz eta horrelako eztabaidek lagun dezaketen gure baloreak argitzen eta aldaketa sozialarekiko gure atxikimendua indartzen, ekarpen txikia egiten diote erakundetzearen zeregin praktikoari, eta indarrean dauden erakundeak zalantzan jartzeko mailari sinesgarritasuna ez diote handitzen.

3 Filosofo moralen arabera, mundu honi alternatiba desiragarriak aurkezteko erakunde bideragarriak eraikitzea posible izan arren, praktikan arreta gutxi eskaini diote kontuari, eta, John Rawls-ek, adibidez, askatasuna printzipio nagusitzat jo arren, errealitatean posible ote den ez du galdetzen.

Alternatiba bideragarrien ikerketak, ordea, indarrean dauden gizarte egituren aldaketarako proposamenetan sakontzen du; ea benetan indarrean jarritako proposamenen zeuden ondorio askatzaileak egiazkoak bihurtzen diren eta modu iraunkorrean. Adibide argigarriena plangintza zentralizatuarena da, sozialismoa aurrera eramateko erabilitako modu historikoa. Merkatuaren anarkiaren aurrean sozialistek uste zuten jendearen egoera hobetu egingo zela ekonomia zentzuz planifikatuta, erakundeetan landutako plangintza zentralizatu baten bidez egikaritu. Baina plangintza zentralizatuaren ondorio kaltegarri nahigabeek benetan bilatzen zituen helburuak hankaz gora jarri zituen, eta ondorioz gaur jende gutxi uste du kapitalismoaren aurreko alternatiba askatzailea bideragarria denik.

Lanketa instituzional baten bideragarritasuna ez da dena ala ezer ez adierazten duen kontu bat, jakina. Baldintza osagarri desberdinen mende egon daiteke. Adibidez, gutxieneko errenta nahiko bat bideragarria izan daiteke lanaren etika kulturalki sendo errotua izan eta betebeharrak kolektiboen sentipena duen herrialde batean, baina ez gizarte kontsumista oso zatitu batean. Edo, baita ere, oinarritzeko errenta bideragarria izan daiteke denbora luzez programa zehatz ugariren bidez birbanaketa garatu duen ongizate Estatuak garatu duen gizarte batean, baina ez ongizate Estatu mugatu eta murriztu bat duen gizarte batean. Beraz, bideragarritasunari buruzko eztabaidek diseinu zehatzen funtzionamendu on baten aukerarako gainerako baldintzak jasotzen dituzte.

Alternatiba bideragarrietan arakatzek alde batera uzten du haien egingarritasunaren gaia indarrean dauden baldintza sozialetan. Batzuek zalantzan jartzen dute teorikoki bideragarriak diren alternatibak aztertzearen egokitasuna, estrategikoki ez badira egingarriak. Ezkorren aurreko erantzuna litzateke, munduaren bilakaera aurreikusian gerta litezkeen ziurgabetasun eta kontingentziak hainbeste izanik, ezin orain jakin zeintzuk liratekeen etorkizunean alternatiba egingarrien mugak. Ziurgabetasun hori dela eta, alternatiba bideragarrien irismena garbi ulertzea garrantzitsua da bi arrazoiengatik. Alde batetik, oraingo garapenak errazten du aldaketa askatzailean engeiatutako gizarte indarrak prest izatea alternatiba bat ezartzeko estrategia errealek proposatzeko, etorkizuneko baldintzek aukerak zabaltzen badituzte. Bigarren, egingarriaren muga errealek neurri batean lotuta daude zein alternatiba jotzen ote ditugun bideragarri sinesten dugunarekin. Alde soziologiko hau garrantzi bizikoa da: posiblea denaren gizarte mugak zerikusia dauka muga horiekiko sinismenarekin. Fisikari batek esaten duenean objektu baten mugitze abiadurak gehienezko muga duela, muga hori objektiboa da, ezin

da gainditu, abiaduraz eduki genitzakeen sinesmenetatik harago dago. Baina gizarte kontuetan mugez gaineko sinesmenek erabat eragiten dute posibletzat jotzen dugun horretan. Hala bada, alternatiba bideragarrien proposamen sinesgarriak aurkeztea, mugak aldatzea posible egiteko prozesuaren parte da.

Ez da erraza modu sinesgarrian azaltzea beste mundu bat posible dela. Jendea gizarte antolatuetan jaiotzen da eta bertako arauak ikasi eta barneratzen ditu haztean. Jendea bizimodua irabazteaz arduratzen da, bizitzak eskaintzen dizkion min eta pozeekin. Nahi izanez gero gizarte harremanak aldatu edo asko hobetu daitezkeela harrigarri edo sinestezin egiten zaio, alde batetik zaila delako alternatiba bideragarri askoz hobeak asmatzea, eta, bestetik, zaila delako indarrean dauden botere eta pribilegio egituren aurkako jarrera batetik lor daitezkeela pentsatzea. Horregatik, nahiz eta indarrean dauden erakundeek kritika eta diagnostikoarekin ados egon, erantzun normalena ezkorra da seguru asko, gauzak benetan aldatzeko ezer asko ezin dela egin pentsatzea alegia.

Ezkortasun horrek arazo serio bat aurkezten die mundu sozial honetako bidegabekeriak konpondu nahi dituztenei. Aukera bat da, jakina, benetako aldaketa baterako eszenatoki zientifikoki sinesgarriekin gehiegi arduratu gabe, mundu honetako bidegabekeriekiko gorrotoan oinarritutako eta gizadiaren ahalmenekiko esperantza eta pasioz osaturiko alternatiba desiragarri baten ikuskari bizigarria sortzen saiatzea. Batzuetan, ameskeria liluragarri horiek mobilizatzeko gaitasun handia erakutsi dute, baina nekez osatuko dute mundua aldatzeko edo alternatiba askatzaile iraunkorrak sortzeko oinarri egokia. Historia, indarrezko zapalkuntza egituren garaipen heroikoen ostean, menperatze eta desberdintasun modu berrien sorkuntza tragikoez beteta dago. Beraz, gizarte-zientzia askatzailearen bigarren zeregina da erakunde alternatibo bideragarriei begira zientifikoki oinarritutako ideia ahalik eta modurik zehatzenean garatzea.

Alternatiba egingarrien teoria koherenteak lantzea funtsezkoa da aldaketa sozialerako estrategien lan praktikorako. Lan zaila da, ez bakarrik ameskeriek kutsatu dezaketelako egingarri denaren zentzua, baita epe luzerako edozein estrategiak etorkizunean biziko dituen baldintzak zeharo kontingenteak direlako ere. Bideragarritasunaren kasuan bezala, egingarritasunak ez du dikotomia errazik: erakunde aldaketarako proiektu desberdinek aukera desberdinak dituzte gauzatzerakoan. Alternatiba bideragarri bat, etorkizunean gauzatu ahal izateko, bi prozesu motaren menpe dago. Alde batetik alternatibaren alde edo kontra dauden eragile sozialek nahita erabiltzen dituzten es-

trategien eta daukaten botere erlatiboaren menpe. Bestetik, estrategia horien arrakastarako aukeretan eragina duten egiturazko baldintza sozial multzo baten denboran zeharreko bilakaeraren menpe. Bilakaera hau, bestalde, neurri batean giza ekimen arruntaren emaitza gehikorren ondorio da, baina baita eragile desberdinek beren ekintzen baldintzak aldatzeko erabiltzen dituzten nahitako estrategien ondorio ere. Alternatiba baten egingarritasuna, beraz, etorkizunean gauzatzen lagunduko duten estrategia koherente eta sinesgarriak aurkeztearen menpe dago, eta baldintzak ematen direnean beharrezko eragile sozialak alternatibaren alde mobilizatzeko gaitasunaren menpe.

ERALDAKETARI BURUZKO TEORIA BAT

Aipatutako gaien ezagutza lortzea da gizarte zientzia askatzaile baten hiru garren zeregina: eraldaketari buruzko teoria. Gizarte zientzia askatzailearena orainalditik etorkizunera bidaia batekin irudikatuz gero: gizartearen kritikak esaten digu zergatik utzi nahi dugun bizi dugun mundu mota hau; alternatibei buruzko teoriak esaten digu nora joan nahi dugun; eta eraldaketari buruzko teoriak nola heldu. Honek elkarri lotutako arazo sail bat barnebiltzen du: indarrean dauden botere eta pribilegio egiturak iraun arazten dituen gizarte birsorkuntza mekanismoak; sistema horietako barne kontraesanei, mugei eta arrakalei buruzko teoria bat, gizarte eraldaketarako estrategientzako tokia ahalbidera dezakeena; estrategiak denboran zehar ezartzerakoan baldintzak aldatzen joan den sistemaren garapen dinamikari buruzko teoria bat; eta batez ere eraldaketa estrategia hauei buruzko teoria bat. Eraldaketa estrategien gaira saiakeraren azken atalean itzuliko gara. Hala ere ondoko lanean gure kezka nagusia gorago aipatutako hiru zeregin nagusietatik bigarrenean izango da: kapitalismoaren aurrean alternatiba askatzaile bideragarriak lantzea. Eztabaida hori garatzeko baliagarri gerta daiteke lehenik kapitalismoaren kritika baten oinarritzko osagaiak azaltzea, ordezeko alternatibaren bilaketa eragiten duten prozesu kapitalisten kalteak aipatuta.

II. Kapitalismoaren kritika nagusia

Lan honetan kapitalismoa ulertuko dugu oinarritzko bi osagai hauek nagusitzen diren gizarte antolaketa modura: alde batetik produkzio-bideen jabetza pribatua duen klase egitura bat, non jendearen gehiengoak bizimodu ateratzen duen bere lan indarra lan merkatuan salduz; eta bestaldetik merkatuan elkar truke deszentralizatuaren bidez gertatzen den koordinazio ekonomikoa. Kapitalismoa ez da soilik merkatu askeko ekonomia bat; klase harreman zehatzetako merkatu ekonomia bat da. Aldaketa teknologikoen zein hazkunde ekonomikoaren mota baten sorkuntzan sekulan eza gutu den sistema ekonomiko ahaltsuena gertatu da. Kritika serioak egin da kizkioke hala ere, eta zuzenak izanez gero ordezkio alternatiba bat bilatzeko oinarri izan daiteke. Kritikoek sostengatzen dituzten froga eta azterketak lan honetatik kanpo gelditzen diren arren, ondokoak nabarmentzen dira ikuspegi errotiko demokratiko eta berdinzale batetik:

- Kapitalismoaren hazkunde ekonomikoaren dinamikak aldi berean etengabe sortzen du aberastasun eta pribilegioen kontzentrazio gero eta handiagoa, eta gabezia, bazterketa eta txirotasun egoera pairatzen duten multzo gero eta handiagoak, nazio bakoitzean eta mundu mailan.
- Kapitalismoak munduko biztanleriaren multzo handien garapen eta oparotasun aukerak etengabe ezeztatzen dituenek, baita herrialde garatuetan ere, kapitalismoaren barruko askapen orokorrik ez da posible.

Aldekoek kapitalismoaren bertute moral nagusitzat jotzen duten aukera askatasuna partziala baino ez da, sortzen dituen desberdintasunek benetako aukera murrizten dutelako -hau da, norberaren bizimodua aldatzeko benetako aukera, desiratzen dena gauzatzeko benetako aukera, ezinezkoa da askorentzat⁴.

- Irabazi nahiak sustatuta, ekoizpena eta merkatuak handitzeko kapitalismoaren joerak- aldi berean kontsumoa eta beharrian artifizialen sorkuntza bultzatuz- ingurugiroan kalte handiak eragiten ditu. (Irabazia maximizatzeko enpresa kapitalistek ingurugiroa kutsatzen dute eta irabazirik ematen ez duten ondasun publikoen sorkuntza galarazten dute: ingurugiro garbia, hezkuntza, osasun sistema publikoa). Merkatu kapitalistek ez dute gaitasunik epe luzeko baliabide natural ez berriztagarrien kostuak barneratzeko eta horrek haien benetako kostua jaso gabe gelditu eta beren neurriz gaineko ustiapena eragiten du.
- Kapitalismoaren joera hedakorrak giza jardueraren gero eta esparru gehiago merkaturatzeko mehatxua dakar: osasun zaintza, ume eta zaharren zaintza, ugalketa, etab, garrantzia handiko kontuen eztabaidak planteatuz.
- Klase harreman kapitalistetan klase interes kontrajarriek higatu egi- ten dute denok batera goazenaren eta elkarrekiko eskuzabaltasunaren zentzua. Harreman zapaltzaile batean zapaltzaileari komeni zaio zapal- duak babesgabe eta gabezian izatea.
- Kapitalismoak mugapen garrantzitsuak jartzen dizkio demokraziari; ekoizpen bideen jabetza pribatuak erabaki kolektiboetatik kanpo uz- ten ditu jarduera ekonomikoaren esparru garrantzitsuak.

Kritika hauen izaera garbi egotea garrantzitsua da. Haietako bakoitzaren baieztapen nagusia da aipatu kalteok kapitalismoaren barruko mekanis- moek eragiten dituztela. Horrek ez du esan nahi gizarte kapitalista batean -egitura ekonomiko kapitalista duen gizarte batean- kalteok gutxitzeko ezin

4 Ikusi Milton eta Rose Friedman: *Free to Choose*, 1990, eta Philippe Van Parijs: *Real Freedom for all*, 1995.

denik ezer egin, baina esan nahi duena da horretarako mekanismo ez kapitalistak sartu beharra dagoela kapitalismoak eragindakoari aurre egiteko. Baina kalteei aurre egin nahian noraino heldu gaitezke, mekanismo antikapitalista gero eta gehiago sartu gabe, azkenerako egitura ekonomiko kapitalista bera aldatu gabe? Kontu hau muinekoa da kapitalismoari aurre egiteko alternatibak diseinatzerakoan, hirugarren zatian ikusiko dugu bezala.

III. Alternatibei buruzko hausnarketa

MARX-EN PLANTEAMENDUA

Kapitalismoari aurre egiteko alternatibak hausnartzean itzal gehien izan duen planteamendua Marx-ek landutakoa izan da. Kapitalismoari aurre egiteko alternatiba bideragarri baten arazoari eman zion konponbide zehatza bikaina izan zen ikuspegi intelektualetik, nahiz eta azken finean gogobete ez. Alternatiba askatzaile bideragarri baten aukera eredu teoriko zehatz baten bidez azaltzen saiatu beharrian, epe luzera kapitalismoaren ezintasuna proposatu zuen. Haren argudioak ezagunak dira: kapitalismoak bere buruaren izaera ezeztatzen du bere dinamika eta barne kontraesanak medio. Harena teoria determinista da: epe luzera kapitalismoa eutsi ezineko ordena soziala bihurtzen da; ondorioz, halabeharrez ordezkaturia izan beharko da alternatibaren batekin. Orduan, ekonomiaren eta gizartearen antolaketa berdinzale eta demokratiko bat posible dela modu sinesgarrian argudiatzea da karkoa. Marx-en teoria dotorearen arabera, kapitalismoa bera higatzen duten barne kontraesanez sortzen dute aldi berean gizarte berdinzale eta demokratikoan interesa duen klasea -langile klasea-, eta klase hau gero eta gaitasun handiagoa lortzen joango da interes hori ekintza bihurtzeko. Eta ondoren Marx-en sozialismoarako teoria, langile solidario sortzaile horien arazoak konpontzera zuzentzen da, pragmatikoa da: denborarekin, kapitalismoak bere krisi eta beheraldiak areagotzen dituen neurrian, langile klaseak Estatuaren botereaz jabetzeko, kapitalismoarekin apurtzeko eta

alternatiba sozialista eraikitzeari ekiteko, behar den antolaketa politikoa garatuko du. Esan daiteke, beraz, kapitalismoa desagertzeari buruzko teoria oso determinista bat –azkenean eutsiezina bihurtzen duten lege batzuek gidatzen dute haren bilakaera- alternatiba eraikitzeke teoria oso boluntarista batekin osatzen duela Marx-ek.

Teoria hori lorpen intelektual handia izan zen eta mugimendu sozial eta politiko erradikalak sustatu zituen mende bat baino denbora gehiagotan. Hala ere, okerra da zenbait aspektu garrantzitsutan, eta ezin da, nire iritziz, kapitalismoa ordezkatzeko gaur eguneko proiektu berdinazale baten oinarritzat hartu. Lau arazo nagusi aipatzera mugatuko naiz orain: lehenengo, bere teoriaren tesi nagusiko argudio marxista ezagunak ez dira gogobetegarriak: kapitalismoak halabeharrez bere burua inarrosten duela eta, beraz, alternatiba batekin ordezkaturik izan beharko duela. Aurreikuspen hori, kapitalismoaren aldizkako krisietarako joeran oinarritzen da, eta gainera denborarekin krisiak larriagotzen joateko joera etengabea; oinarri teoriko zalantzagarrien gainean egindako baieztapena da.

Bigarren, klase egitura kapitalistaren bilakaera proletalgo gero eta homogeneoago baterantz zuzentzen dela dioen aurreikuspen marxista ezaguna ez da horrela gertatu. Egia da garapen kapitalistaren bilakaerak lan harreman kapitalisten mendeko langileria zabaldu egin duela, baina herrialde garatuetan behintzat honek ez du ekarri proletalgo gero eta zabalago bat eta klase homogeneizazio bat, klase egitura gero eta konplexuagoa baizik. Klase harremanen baitan egoera kontraesankorrak ugaltzen dira, langilego autonomoa 1970eko hamarkadatik etengabe hazi da herrialde kapitalista garatu gehienetan, langile klasearen zati handi batek akzioak eta pentsio funtsak ditu, familia heterogeneoagoak daude klase ikuspegitik, emakume ezkondu gehiago sartu da lanean, ibilbide profesionalak denboran zehar egonkortasun falta sortzen dute klase egoeran⁵. Klase harreman gero eta konplexuago horiek ez dute esan nahi klase partaidetzak garrantzia galdu duenik jendearen bizitzan, ezta klase egitura kapitalistek indarra galdu dutenik ere, baina erakusten dute kapitalismoaren egiturazko aldaketek bertan behera utzi dutela langile klasearen eta kapitalismoaren arteko harremana gero eta homogeneoagoa izango dela dioen tesia.

5 Xehetasun gehiagotarako ikus E.O.Wright: *Class counts. Comparative studies in class analysis*. Cambridge. 1997

Hirugarren, kapitalismoaren ustezko lurperatzaileen gaitasun orokorra ez da etengabe handitu garapen kapitalistarekin. Alde batetik langile klasearen -zentzu zabalean hartuta- baitan ematen den interes aniztasunagatik, baina baita ere klase konpromisoen modu desberdinen indarragatik, sistemari aurre egiteko gaitasuna murrizten dutelako.

Azkenik, eraldaketa iraultzailearen teoriak ez du oinarri sinesgarri bat eskaintzen kapitalismoa modu berdinzale eta demokratiko batez gainditzeko. Kapitalismoaren kontrako altxamendu iraultzaileak izan diren arren, eraldaketa iraultzaileen adibide historikoak ez dira gai izan erakunde demokratiko berrituen eraikuntza mantentzeko denboran zehar. Erakunde askatzailer alternatiboen eraikuntzari buruzko teoria boluntaristak jendearen parte hartze bizi, sortzaile eta boterez jantzia eskatzen du eztabaida eta erabakitzeko prozesuetan. Izan dira horrelako parte hartzealdiak eraldaketa prozesu iraultzaile batzuetan, baina beti iraupen laburrekoak eta isolatu xamarrak. Zaila da porrot horien arrazoiak aurkitzea, jakina, baina gerta daiteke eraldaketa iraultzaile bat arrakastaz burutzeko behar den botere politiko eta eragintzailearen zentralizazioa ez etortzea bat demokrazia berritzaile batek eskatzen dituen praktika parte hartzaileekin. Alderdi iraultzaileak tresna eraginkorrak izan daitezke Estatu kapitalistak eroriarazteko egoera batzuetan, baina badirudi oso ezgai direla alternatiba berdinzale eta demokratikoa eraikitzeko. Ondorioz, kapitalismoarekin apurtu duten kasu errealek ezagutzen antolaketa ekonomikoaren eredu burokratiko-estatalak gertatu dira, alternatiba berdinzale eta demokratikoak planteatu beharrean.

PLANTEAMENDU BAT ALTERNATIBETATIK DESBERDINA

Kapitalismoari aurre egiteko alternatiben ikuskera marxista ezaguna kapitalismoaren bilakaeraren ezaugarri nagusiei buruzko teoria determinista batean finkatuta dago: haren etorkizunaren oinarritzko ezaugarriak iragarritu, alternatiba askatzaile baten gauzatzean lagundu nahi zuen Marx-ek. Teoria hori alde batera utziz gero zailagoa da kapitalismoari aurre egiteko alternatiba askatzaile bideragarri baten aukera modu sinesgarrian argudiatzea. Aukera posible bat zera zen, erakunde sozialisten proiektu orokor bat landu, erakundeok benetan funtzionatuko zutela erakutsiz, eta gero bide orri bat, ezagutzen genuen mundutik azken helmugara iristeko ibilbide posibleekin. Bide orria eskuetan, gure lan nagusia bidaiatzeko ibilgailu egoiena asmatzea zen.

Gaurko gizarte teorietan batek ere ez du nahikoa indar kapitalismotik haragoko helmugako gizartearen mapa orokor bat lantzen hasteko ere. Benetan gerta daiteke teoria hori ezinezkoa izatea hasieratik bertatik ere; aldaketa soziala konplexuegia baita, eta gertakizun dauden eragin-prozesuen uztardurak zerikusi handiegia izan dezake horren gainean, plangintza baten antza hartu ahal izateko. Edozein modutan, ez dugu inongo maparik, eta hala ere utzi egin nahi dugu gaitz eta injustiziengatik gauden lekua. Zer egin orduan?

Leku jakin batera zuzentzen den bide-orriaren adibidearen orde, aldaketa sozial askatzailearen proiektuak esplorazio baten antz handiagoa izango luke. Mundu ezaguna uzten dugu gida-tresna ezagunak eskutan. Zein norabidetan goazen eta abiapuntutik hasita iritsi garen tokirainoko distantzia esaten digute, baina ibilbide osoa zehazten digun maparik gabe. Hori, jakina, arriskutsua da; ustekabeko oztopoek pentsatu gabeko norabidean mugitzera behartu gaitzakete; gerta daiteke atzera egin behar izatea eta ibilbide berri batekin saiatu. Behar bada bidean asma ditzakegun teknologiekin urrutiago begiratzea ahalbidetzen digun plataforma bat sor dezakegu. Azkenean burutu dezakegun bidaiak dituen gainditu ezineko mugez jabe gaitezke, baina norabide egokian mugitzen ari garen jakin dezakegu gutxienez.

Alternatiba askatzaileen hausnarketa bide honek jarraitzen du kapitalismotik haragoko bizitza bati buruzko arautegiaren ikuspegi sendo batekin, baina aldi berean aitortzen du sistema kapitalista gainditzeko dugun benetako aukerari buruz daukagun ezagutza falta. Horrek ez du suposatzen alternatiba berdinzale eta demokratiko bat eraikitzeko gainditu ezindako mugak daudela dioen baieztapen faltsua onartzen dugunik; gertakizun dagoenaren mugei buruzko ezagutza sendo baten falta ez dagokio bakarrik alternatiba erradikalen perspektibari, baita kapitalismoaren iraunkortasunari ere. Horrelako esplorazio batean abiatzeko gakoa gure gidatze tresnen gaitasuna da. Iparrorratz sozialista dei dezakeguna osatu behar dugu beraz: norabide zuzenean ote goazen esango diguten printzipioak.

SOZIALISMOARI BURUZKO IKUSKERAK

Sozialismoari buruzko eztabaida gehienetan hau kapitalismoaren guztiz kontrakotzat jo izan da, bata bestearekin alderatuta. Ohikoa izaten da ekoizpena antolatzeko moduei buruzko eztabaida batekin hastea eta hortik abiatuta kapitalismoa ezaugarritzea ekoizpena irabazia maximizatzen jotzen duen egitura ekonomiko bat bezala, merkatu trukearen bidez, ekoizpen bideen pribatizazioaren bidez eta lan indarra saltzera behartuz bizimodua irabazteko. Sozialismoa premisa horiek ezeztatuta ezaugarritzen da. Ekoizpen bideen jabetza pribatua denez kapitalismoaren ideiarekin ardatz nagusia, sozialismoaren ezaugarria mota bateko edo besteko jabetza publikoa litza-teke, normalean Estatu jabetzaren antolaketa instituzionalaren bidez. Nik beste modu batez azalduko dut sozialismoaren ideia, bi egitura ekonomiko alternatiboekin alderatuz, ez batekin bakarrik: kapitalismoa eta estatismoa.

Kapitalismoa, estatismoa eta sozialismoa baliabide ekonomikoen erabilpena, kontrola eta banaketa erabakitzeke botere harremanak antolatzen dituzten modu alternatibo bezala har daitezke. Hasteko, honela ezaugarritu dezakegu boterea ideia horietan:

- Kapitalismoan ekoizpen bideak jabetza pribatukoak dira eta, ondorioz, baliabideen esleipen eta erabilpena botere ekonomikoaren bidez egiten da gizarte zeregin desberdinetan. Inbertsioak eta ekoizpenaren kontrola botere ekonomikoaren jabe diren kapitalisten jardueraren emaitza dira.
- Estatismoan ekoizpen bideak Estatuaren jabetzakoak dira eta, ondorioz, baliabideen esleipen eta erabilpena Estatu boterearen bidez egiten da gizartearen zeregin desberdinetan. Estatuko funtzionarioek kontrolatzen dute inbertsio eta ekoizpen prozesua Estatu tresna administratibo desberdinen bidez.
- Sozialismoan ekoizpen bideak gizarte osoaren jabetzakoak dira eta, ondorioz, baliabideen esleipen eta erabilpena botere soziala dei dezakegunaren bidez egiten da gizarte zeregin desberdinetan. Gizarte zibilean mota desberdineko ekimen kolektibo kooperatiboak borondatez egiteko jendea mobilizatzeko dagoen gaitasunean datza botere soziala. Honek esan nahi du gizarte zibila benetako botere esparrua ere badela, ez bakarrik jarduteko, sozializatzeko eta komunikatzeko esparru bat. Botere soziala desberdina da baliabide ekonomikoen jabetza eta kontrolean oinarritzen den botere ekonomikoaren eta lurralde batean arauak sortu eta

zabaltzeko kontrola eta horiek bete arazteko gaitasuna duen Estatu boterearen aldean. Ildo honetan demokrazia, botere soziala eta Estatu boterea harremanetan jartzeko modu zehatz bat bezala har daiteke: demokrazia idealean Estatu boterea botere sozialaren menpe dago guztiz eta haren aurrean ematen ditu azalpenak. Demokraziak, beraz, barnean darama izaera bete-betea sozialista. Demokraziak suposatzen badu Estatu boterea botere sozialaren menpe izatea, sozialismoak suposatzen du botere ekonomikoa botere sozialaren menpe egotea. Inbertsio eta ekoizpenaren kontrola botere sozialaren mekanismo baten bidez antolatzen da sozialismoan.

Sozialismoa botere sozialean errotuta kokatzeko ikuskera hau ez da ohikoa. Askok sozialismotzat hartzen dute nik hemen estatismotzat jotzen dudana. Berrezaugarritze honek sozialismoari buruzko ideia moral nagusi bat jasotzen du: jende soilaren nahi eta beharren arabera antolatutako ekonomia bat da, eta ez eliteen beharren arabera; beraz, jende arruntak kontrolatu behar du modu batez edo bestez, botere sozialaren menpe egon behar du. Garrantzitsua da argi geratzea mugitzen ari garen esparrua: egitura ekonomiko desberdinak izan arren, bakarrik kapitalismoan gertatzen da botere ekonomikoa izatea baliabide ekonomikoen erabilpena erabakitzerakoan eragile nagusia. Estatismoan eta sozialismoan ekonomiatik desberdina den botere mota bat da eragile nagusia hautazko erabilpenetarako baliabide ekonomikoen esleipena erabakitzerakoan. Egia da kapitalismoan badirela botere soziala eta Estatu boterea, baina ez dira eragile nagusiak baliabide ekonomikoen esleipen eta erabilpenean.

Hiru mota ideal horietako bakoitzarentzat muturreko egoera bat irudika daiteke, non botere mota bakarrak kontrolatzen dituen baliabide ekonomikoak. Ildo horretan, totalitarismoa hiperestatismo mota bat bezala uler daiteke, non, estatu-boterea prozesu ekonomikoetan eragile nagusia izateaz gain, botere ekonomikoa eta botere asoziatiboa desagertzen diren neurri handian. Kapitalismo ultraliberal gordinen Estatu zeharo murrizten da eta “gaueko zaintzailearena” baino ez du egiten soilik jabetza eskubideak zaintzera dedikatuz, merkatu jarduera gizartearen esparru guztietan barneratzen den bitartean dena salgai bihurtuz. Botere ekonomikoaren jarduerak berak sortuko luke baliabideen esleipen eta erabilpena; hiritarrak sakabatatutako kontsumitzaileak dira merkatuko erabaki pertsonal soilekin, ekonomian modu kolektiboan bat ere eragin gabe gizarte alorreko elkarte

bidez. Komunismoa, marxistek ulertzen zuten moduan, Estatua desagertu den gizarte mota bat da, eta ekonomia gizarte zibilaren esku gelditzen da, elkartutako norbanakoen jarduera kooperatzaile eta libre bezala.

Muturreko eredu horietako batek ere ezingo luke iraun eta birsortu antolaketa sozial gisa. Totalitarismoak sekulan ez ditu guztiz ezabatu gizarte sare informalak eta hauek elkarrekintza sozial kooperatibo baterako oinarri izan dira Estatuaren kontrol zuzenetik kanpo, eta erakunde ekonomikoen funtzionamendu praktikoa ez zen egon sekulan planifikazio zentral baten menpe eta haren kontrolpean erabat. Kapitalismoa ordena sozial kaotiko guztiz iraungaitza izango litzateke amets ultraliberalak esleitzen dion zeregin minimalista betetzera mugatuko balitz Estatua. Baina, ekonomiak gizarte zibila beste esparru bat bezala barneratuko balu bizitza soziala merkatuaren mende eta sakabanatuta utziz, funtzionamendua baita ere norabiderik gabekoa bihurtuko litzateke, Polanyi-k adierazi bezala. Komunismoa bere horretan ere amets utopikoa da, zaila baita legeak prestatu eta bete arazteko aginte erakunderik (Estatua) gabeko gizarte konplexu bat irudikatzea. Beraz, maila orokorreko antolaketa sozialen eredu bideragarri eta iraunkorrek beti izango dute hiru botere mota horien arteko elkarrekiko harremanen bat.

Ikuskerara orokor honen arabera kapitalismoa, estatismoa eta sozialismoa eredu ideal berezituak izateaz gain, aldagaiak lirateke. Botere ekonomikoa jabetza pribatuaren bitartez daukaten eragileek erabakiek zenbat eta gehiago baldintzatu baliabide ekonomikoen esleipen eta erabilpena, orduan eta kapitalistagoa izango da egitura ekonomikoa. Estatuaren erabakien eraginak zenbat eta gehiago baldintzatu baliabideen esleipen eta erabilpena, estatistagoa izango da gizartea. Eta gizartea sozialistagoa izango da gizarte zibilean erroturiko botereak zenbat eta gehiago baldintzatu baliabideen esleipen eta erabilpen hori. Beraz, kasu misto eta hibrido mota asko da posible, zeinetan gizarte bat kapitalista izan daitekeen arlo batzuetan eta estatista edo sozialista beste batzuetan.

Egitura ekonomikoak botere harremanen araberako nahasketa bezala ikustea funtsezkoa da egiturok aldatzeko. Gaurko gizarte kapitalista guztiek gordetzen dituzte estatismoaren ezaugarri esanguratsuak, Estatu guztiek gordetzen dutelako gizarte soberakinaren zati bat azpiegiturak, defentsa eta hezkuntza bezalako arloetan inbertitzeko. Gainera, gizarte kapitalista guztietan Estatuak ekoizpen-bideen jabeen eskutik kanpo gel-

ditzen diren hainbat botere gordetzen dituzte, haiei osasun eta segurtasun arauak ezartzen dizkietenean adibidez. Estatu botereak, eta ez ekonomikoak, kontrolatzen ditu ekoizpenaren atal zehatz horiek, beraz esan daiteke jabetza neurri batean Estatuari transferitzen zaiola. Gizarte kapitalistek ezaugarri sozialista batzuk ere gordetzen dituzte beti, gizarte zibileko eragile kolektiboek zeharka eragiten dutelako baliabide ekonomikoen esleipenean, Estatua (legeen bidez) eta enpresa kapitalistak (soldata zein lan baldintzen kontuetan) baldintzatzen dituztenean. Kapitalismo hitzaren adiera orokortua edozein kasu erreal deskribatzeko, “jarduera ekonomikoaren antolaketaren ezaugarri nagusi kapitalismoa duen egitura ekonomikoa”-ren laburdura bat litzateke.

IV. Botere sozialera bideak


Ikuskera proposamen honen laburpen gisa, sozialismoa kapitalismoarekin eta estatismoarekin aldera daiteke jarduera ekonomikoa, hau da, ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketa, ezaugarritzen duen botere forma nagusia aztertzerakoan. Zehatz esanda, zenbat eta handiagoak izan baliabide eta jarduera ekonomikoen gaineko botere sozialaren maila eta moduak, hurbilago geundeke ekonomia sozialista batetik. Honek zer esan nahiko luke erakundetze motaren arloan? Kapitalismoa eta estatismoari dagokionez, indarrean izan diren adibide historikoei esker argi samar dauzkagu egitura ekonomiko horiek ahalbidetzen dituzten antolaketa instituzionalak. Baina sozialismoari buruz zer esan? Zein antolaketa instituzionalek ahalbidetuko lioke gizarte zibileko borondatezko elkarreetan errotutako botereari ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketaren kontrola? Zer esan nahi du ekonomiaren oinarri organizatibo nagusi bezala botere soziala duen gizarte baten norabidean aurreratzeak? Zer esan nahi du erakundeen arloan ekoizpen-bideak gizarteko kide guztien jabetza kolektibokoak direla esateak eta ez estatu-jabetzakoak?

Honi dagokionez gure lana ez da jarduera ekonomikoaren gainean botere soziala garatzeko proiektuak proposatzea, baizik eta norabide egokian goazela adieraziko diguten printzipio multzo bat aurkeztea. Hori da iparrorratz sozialista baten zeregina. Iparrorratz horrek norabide nagusiak erakutsi beharko ditu, aztertzen ari garen ezaugarritzeetan oinarri hartuta:

- Botere soziala handitzea jardura ekonomikoa baldintzatzeko estatu-boterearen moduetan.
- Botere soziala handitzea botere ekonomikoak jardura ekonomikoa antolatzen duen moduan.
- Botere soziala handitzea jardura ekonomikoaren gainean.

Botere sozialaren garapenaren hiru norabide hauek botere soziala baliabideen esleipenean eta ekoizpen eta banaketaren kontrolean botere bihurtzeko bide multzo bat erakusten digute. 1^o irudiak erakusten duen moduan⁶.

1^o irudia: Botere sozialerako bideak




6 Geziek esparru batek beste batengan duen eragina adierazten dute. Botere sozialetik estatalera doan geziak esan nahi du gizartean errotutako botereak bete-betean eragiten duela estatu-boterearen jardunean. Irudiak botere sozialak dituen eragiteko moduak erakusten ditu bakarrik. Ez du jardun ekonomikoaren gaineko botere harremanen mapa osoa agertu nahi. Antzerako mapa bat marraztu daiteke estatismorako bideekin edo botere ekonomiko kapitalistarako bideekin.

Bost bide bereziki garrantzitsuak daude. Bakoitzarentzat erakundetze proposamen zehatzen multzo bat pentsa dezakegu, botere soziala handitzeko norabidean mugitzeko. Erakundetze proposamen horiek azaltzeari “utopia errealean etorkizuna” deitzen diot: utopiak asmo askatzaileen ikur direlako, eta errealak antolaketa instituzional bideragarriak azaltzen saiatzen direlako. Ondoren botere soziala bilatzen duten bost bide horien ezaugarriak azalduko ditut labur.

ESTATU-SOZIALISMOA

Ohiko teoria sozialistan herri botereak -gizarte zibilaren elkartegintzan erroturiko boterea- Estatuaren bidez kontrolatzen zuen nagusiki ekoizpen eta banaketa, eta horregatik planteamendu horiek estatu-sozialismoaren ereduak kontsidera daitezke. Oinarrizko ideia honakoa zen: Estatuarengan eragiteko helburuarekin gizarte zibilean antolatutako elkarteak dira alderdi politikoak. Hango kideak helburu batzuk lortzeko elkartzen dira, eta euren boterea mota desberdineko ekimen kolektiboak bultzatzeko duten gaitasunaren arabera da. Alderdi sozialista bat langile klasearen sare sozialetan eta komunitateetan ondo errotuta baldin bazegoen, eta langile klasea ordezkatuz prozesu politiko zabal baten bidez demokratikoki kontuak ematen bazituen, eta alderdi hori Estatua kontrolatzera iristen bazen eta Estatuak ekonomia kontrolatzen bazuen, ondoriozta zitekeen gizarte ahaldundu batek kontrolatzen zuela ekoizpen eta banaketaren sistema ekonomikoa. estatu-sozialismoaren ohiko eredu hau 2. irudian laburbiltzen da. Ikusten den bezala botere ekonomikoa baztertuta gelditzen da: ekoizpena antolatzeko boterea ez datorkie eragileei aktiboen gaineko jabetza zuzenetik, gizarte zibileko bere erakunde politiko kolektibotik eta estatu-boterea garatzearen bidez baizik.

2. irudia: Estatu sozialismoa



Era honetako estatu-sozialismoa sozialismo iraultzaileari buruzko ohiko ideia marxisten erdigunean zegoen. Agertokiak, paper gainean behintzat, alderdia langile klasearekin bat eginda egongo zela aurreikusten zuen eta kontuak emango zituela kideen aurrean eta, horrela, Estatuaren gaineko kontrola, gizarte zibilak (klase terminoetan ulertuta) Estatua kontrolatzeko tresna izango zen. Gainera sozialismo iraultzaileak Estatuaren eta ekonomiaren berrantolaketa osoa aurreikusten zuen -parte hartzeko kontseiluen bidez, Errusian sobiet deiturikoen bidez-, langile antolakundeak boterean zuzenean txertatuz, Estatuan zein ekoizpenean. Kontseilu horiek, demokratikoki boterera iritsiz gero eta gizarte zibil autonomoan errotuta izanez gero, elkarleen nagusitasuna instituzionalizatzeko tresna gisa uler zitezkeen. Berriz ere alderdia jotzen zen prozesuaren erdigune, gizarte zibilaren antolakuntzarako eta botere sozial eraginkorra ezartzeko zuzendaritza ematen zuelako.

3.irudia: Estatu-sozialismoa

a/ Estatu-sozialismo demokratiko baten eredu teorikoa



* Ordezkaritza demokratikoa, alderdi sozialistaren bidez.

** Estatu plaifikazioa

b/ Benetako emaitza historikoa



* Estatu-alderdiaren kontrol soziala

** Plangintza zentralizatu, autoritario, burokratikoa

Gauzek ez zuten horrela funtzionatu, jakina. (ikusi 3. irudia). Izan alderdi iraultzaileek boterea erdigunean kontzentratzeko duten berezko joeragatik, izan Errusiako iraultzari eta bere iraupenari egoera historikoak ezarri zizkion muga izugarriengatik, baina finean, Alderdi Boltxebikeak gizarte zibil autonomo bati men egiteko edozein aukera teoriko jada suntsitua geratu zen 1917.aren ondoko hamarkadan. Sobietar Estatu berriak bere boterea finkatu eta ekonomia aldatzeko ahaleginetan indar guztia jartzen ari zen garaian, Estatu menperakuntzarako tresna bihurtuta zegoen alderdia, gizarte zibilean barneratu eta ekonomia erakundeak kontrolatzeko tresna. Sobiet Batasuna larderiazko estatismoaren ikur bihurtu zen horrela, sozialismoaren banderapean baina sozialismorik gabe. Egitura ekonomiko hibrido horretan hainbat elementu sozialista gorde arren, oinarri organizatibo nagusia estatismoa zen, ez botere soziala. Alderdi sozialista iraultzaile jakinen ondorengo garaipenek, aldeak alde, orokorrean bide bertsuari ja-

rraitu zioten, estatismo modu desberdinak sortuz baina sekula ez gizarte zibilaren boterean oinarrituriko sozialismo bat.


Gaur sozialista gutxi pentsatzen du Estatu plangintza zentral oso bat helburu sozialistak lortzeko egitura bideragarria denik. Hala ere estatu-sozialismoa botere soziala handitzeko edozein prozesuren osagaia da. Estatuak beharrezkoa izaten jarraituko du ondasun eta zerbitzu publiko sorta zabal bat bideratzeko, osasun zaintza eta hezkuntzatik hasita garraio publikoraino, eta ekonomia autoritarioetan plangintza zentralak hartu duen ospea gora behe-
ra, gerta daiteke etorkizun batean, baldintza historiko desberdinetan, ondasun mota baten plangintza zentralaren modu eraginkor eta demokratikoak bideragarri izatea. Gakoa, sozialistentzat, beraz, zera da, Estatu logistikaren osagai horiek zein neurritan geldi daitezkeen demokratikoki boteretutako gizarte zibil baten kontrolpean. Gizarte kapitalistetan ohikoa da botere sozialak demokrazia ordezkatzaileren erakunde bidez erabakimen gutxi izatea ondasun eta zerbitzu publikoen Estatu horniduran. Botere ekonomikoak Estaturen jardueraren gainean duen eragin izugarriagatik sarritan ondasun eta zerbitzuok gehiago daude zuzenduta kapital metaketarako bide jakinak erraztera, behar sozialak asetzera baino. Estatuaren kalitate demokratikoan sakontzea da, beraz, konpondu beharreko arazoa, ondasun eta zerbitzuen Estatu hornidura justua botere sozialerako bide jator bat bihurtu dadin.

Asko ezkor sentituko dira hori lortzeko esperantzari buruz. Botere autoritario eta kontrolatzaileen burokrazien porrotak, ekonomia sozial-estatistetan zein kapitalistetan, Estatu zerbitzuen pribatizazioaren aldeko aldarriak sustatu ditu, ez haien demokratizazioa. Hala ere, izan diren berrikuntzekin, badi-
ra arrazoiak sinesteko posibleak direla modu parte hartzaileagoak, batez ere toki eta eskualde mailan, eta hobetu daitezkeela zerbitzu publikoen horniduren eraginkortasuna zein erakunde demokratikoen kontu emateak⁷.

Brasilen, Porto Alegren 1990eko hamarkadan garatutako aurrekontu parte hartzaileen sistemak hiritar eta elkarte ugari inplikatu zituen hiriko aurrekontuei buruzko erabakietan, eta batez ere tokiko ondasun eta zerbitzuen estatu-ekoizpenean. Iraun zuen bitartean aurrekontu parte hartzaileak p-
breen eta langile klasearen beharretara zuzendu zituen tokiko administra-
zioaren azpiegituretako inbertsioak.

7 Archon FUNG y Erik OLIN WRIGHT, Deepening Democracy. Institutional innovations in empowered participatory governance, Londres, 2003.


4. irudia: Ekonomiaren arauketa sozialdemokrata estatista



ARAUKETA SOZIALDEMOKRATA

Botere soziala handitu ahal izateko bigarren bidea Estatuak botere ekonomikoa arautu eta mugatzen duen moduetan datza (ikusi 4. irudia). Desarautze eta merkatu ideologiaren garaipenaren garai hauetan ere, Estatu bete-betean dago sartuta botere ekonomiko kapitalista baldintzatzen duten ekoizpen eta banaketaren arautze moduetan. Honek esku-hartze sorta zabala hartzen du kontuan: kutsaduraren kontrola, laneko osasun eta segurtasun araudia, produktuen segurtasun araudiak, lan merkatuetako kualifikazio tituluen banaketa, gutxieneko soldata, etab. Honek esan nahi du estatu-botereak kapital jabeen botere batzuk murrizten dituela, eta, beraz, eragina dauka jarduera ekonomikoan. Estatuaren esku-hartze positibo hauek botere sozialaren menpe jartzen diren neurrian handitzen da bere indarra.

5.irudia: Estatu kapitalistaren ardurapeco arauketa ekonomikoa




Alabaina, botere ekonomikoa kapitalistaren Estatu arauketak ez du botere soziala zertan inplikatu modu garrantzitsuan. Berrito ere, erabakiorra dena da Estatu arauketa horiek zein neurritan diren botere demokratikoaren emaitza jator bat. Errealitatean gizarte kapitalistetan arauketa ekonomikoaren zati handi batek gehiago erantzuten die kapitalaren botere eta beharrei gizarte zibilarenei baino. Emaitzak 5. irudiaren antz handiagoa dauka 4.arena baino: Estatu botereak kapitala arautzen du baina kapitalaren boterea etengabe mesedetuz. Kontua orduan zera da, zein neurritaraino den posible gizarte kapitalistetan prozesu arautzaileak demokratizatzea kapitalaren boterea murriztu dezaten eta botere sozialarena indartu. Modu bat demokrazia asoziatiboa deritzona da.

DEMOKRAZIA ASOZIATIBOA

Demokrazia asoziatiboak –hirugarren bideak- gobernu jardura jakinetan gizarte zibileko elkarleen parte hartze zuzena bideratzeko antolaketa instituzional sorta zabala hartzen du kontuan, Estatu agentzien ondoan normalean.


Botere soziala eta estatu-boterea batera arituko lirateke botere ekonomikoaren gainean (ikus 6. Irudia). Kasu ezagunenak seguru asko demokrazia sozial batzuetan ematen diren akordio hirukoitz neokorporatibistak dira, bertan erakunde sindikalek, patronalek eta Estatuak hainbat arauketa ekonomiko negoziatzen dituztelarik, batez ere lan merkatua eta enpleguari buruzkoak. Demokrazia asoziatiboak beste esparru askotara zabal liteke, adibidez ekosistemak arautzeko elkarteak, ekologistak, higiezin enpresak eta Estatua biltzen dituzten uren isurialdeen banalerroetarako kontseiluak; osasun zaintzari buruzko kontuak eztabaidatzeko elkarte medikuak, herri elkarteak, eta funtzionario publikoak biltzen dituzten osasun zaintzako kontseiluak. Hor parte hartzen duten elkarteek barne demokrazia baldin badute eta gizarte zibilaren interesen ordezkari baldin badira eta erabakitzeko prozesua zabala eta eztabaida ahalbidetzen duena baldin bada, eliteek eta Estatuak manipulaturia izan gabe, demokrazia asoziatiboak lagun dezake botere soziala zabaltzen.



KAPITALISMO SOZIALA


Botere ekonomikoa jabetza pribatuan eta mota desberdineko kapitalen esleipen, antolaketa eta erabilpen pribatuan oinarritzen da. Gizarte zibileko elkarteek mekanismo desberdinak erabiliz alda dezakete botere ekonomiko hori erabiltzeko modua (7. irudia). Adibidez, sindikatuek pentsio funts handiak kontrolatzen dituzte sarritan; normalean funts horien erabilpena onuradunen pentsioak osatzera baino ezin da dedikatu, arauak zorrotz mugatzen baitute funtsen erabilpena. Baina arauak alda daitezke eta sindikatuek funts horiek erabiliz eragina izan dezakete enpresetan. Robin Blackburnek anbizio handiagoarekin enpresen gaineko zergekin finantzatzutako funts mota berria proposatu du, gizarte zibileko elkarte sorta zabalago bati eragin ahalmen garrantzitsua emanez kapital metaketaren gaitan. Kandan, adibidez, mugimendu sindikalak sindikatuek kontrolatutako kapital funts bat sortu du irizpide sozialak betetzen dituzten enpresa hasiberriak finantzatzeko.

7.irudia: Kapitalismo soziala



Kapitalismo soziala ez da mugatzen gizarte zibileko elkarrekin kontrolatutako kapital fondoetara. Botere ekonomikoa mugatzeko gizarte zibileko elkarrekin boterea indartu dezaketen beste proposamen batzuek lantokiaren kudeaketaren arlo batzuetan langileen parte hartze kolektiboan zentratzen dira. Tamaina handiko enpresetako administrazio kontseiluetan erabaki bateratua bilatzeko langileen ordezkaritza sartzera behartuta dauden Alemaniako arauak horren adibide mugatu bat izan daitezke. Administrazio kontseiluak kontrolatzeko akzionisten kontseiluak kaltetuen kontseiluekin (bezero eta langileak hartzen dituzte barne) ordezkatzeko proposamenak bertsio erradikalagoak lirateke. Edo laneko higie eta segurtasunaren araua har dezagun, normalean gobernu agentzia batek kontrolatzen duen arloa, ikuskatzaileak bidaliz lantokietara arauen gainean egoteko: alternatiba bat izango litzateke langile batzordeen esku uztea laneko higie eta segurtasuneko baldintzen zaintza eta betearazpena. Horrek botere soziala handituko luke ekonomikoaren gainean. Kontsumitzaileen ize-nean enpresen gaineko presioa egiten duten herri mugimenduak ere botere sozialaren beste modu bat dira. Lantoki esplotatzaileen kontrako mugimenduak eta laneko gutxieneko arauak betetzearen alde unibertsitate batzuetan antolatu diren mugimenduak, edo ohiko baldintzak errespetatzen ez dituzten korporazioen kontrako boikot kanpainak, adibide interesgarriak dira.

8. irudia: Ekonomia soziala



Ekonomia Soziala

Botere soziala handitzeko azken bidea ekonomia jardueraren hainbat esparutako antolaketa gizarte zibileko elkarten parte hartze zuzena da, botere ekonomikoaren osagarri izatera mugatu gabe. (8. irudia). Ekonomia soziala da jarduera ekonomikoa zuzenean antolatzekeko modu alternatiboa, eta desberdindu egiten da merkatu kapitalistarako ekoizpenetik, Estatuak antolatutako ekoizpenetik edo familia mailako iraute-ekoizpenetik. Bere ezaugarri berezia da ekoizpena hainbat kolektibok antolatzen dutela giza beharrak zuzenean asetzeko, irabazia maximizatu beharraren edota Estatuaren arrazoimen teknokratikoaren menpe erori gabe⁹. Hor koka daitezke komunitate mailan antolaturiko osasun zaintzarako klinikak eta eguneko arreta, baita ere bitarteko xurgatzailerik gabeko hegoaldeko herrialdeetako produktuen salmenta justua sustatzen duten GKEak, edo lurra erosi eta merkatutik ateratzeko eta etxebizitza eskuragarriak eraikitzeke helburuz kudeatzen duten tokiko elkarteak.

Gizarte kapitalistan ekonomia sozialaren ekoizpena finantzatzeko era nagusia karitatezko dohaintzak dira; hori da horrelako jarduerak erakunde erlijiosoek antolatuak izateke arrazoietak bat. Alternatiba bat zera litza-teke, Estatuak zerga ahalmenaren bidez finantzazioa eskaintzea merkatura zuzendu gabeko gizarte ekimeneko ekoizpen aukera zabal batentzat. Hau ohikoa da arte eszenikoetan: irabazi asmorik gabeko elkarte artistiko askok giza behar zehatz batzuk betetzeko asmoarekin dihardu eta Estatu laguntza garrantzitsuak jasotzen dituzte merkatuaren presiorik gabe aritu daitezen. Quebec-en adinekoen etxex-etxeko arretarako langile kooperatibak daude, eta guraso kooperatibak haurtzaindegiez arduratzeko. Herrialdeko gobernuak modu garrantzitsuan laguntzen ditu kooperatiba horiek eta legeak ezartzen ditu irabazi asmoa duten enpresen sarrera galarazteke ekonomia sozialeko sail lagunduetan. Kooperatiba hauek ekonomia sozialaren aldeko mugimendu batetik sortu ziren eta elkarte batek koordinatzen ditu, Le chantier de l'économie sociale¹⁰. Kanadako osasun zaintza sistemak ekono-

9 Irudian ez dago gezurik estatutik ekoizpen eta banaketara zuzenduta, estatuak ez duelako zuzenean hartzen parte horrelako jardueretan, nahiz eta bere zeregina garrantzitsua izaten segi, jakina, ekonomia soziala funtzionatzeko legezko mugak ezartzerakoan.

10 Quebec-eko ekonomi sozialeko ekimen berritzaileen ikustaldi bikaina aurki daiteke, Marguerite Mendell-en *The social economy in Quebec. Discourses and strategies*, Critical Political Studies, Debates from the left-en-en argitaratua, Kignston 2002. Ikusi baita ere Nancy Neamtam-en *The social economy: finding a way between the market and the state*, Policy Options-en argitaratua 2005ean.

mia sozialaren eragin handia dauka: Estatuak finantzatzen du ia osasun zaintza osoa eta arauak ezartzen ditu, baina normalean ez du berak antolatzen zaintza, Erresuma Batuko Osasun zaintza sistema nazionalean bezala, gizarte zibileko entitate mota desberdinek, herrietako ekimenak barne, kudeatzen dituzte ospitale, klinika eta jarduera medikoak. Tarte dago, beraz, arlo honetan osasun zaintzaren ekonomia sozialak behar bada zeregin handiagoa bete ahal izateko, herri mailako kooperatiba parte hartzaileen bidez jardunez.

Ekonomia soziala modu garrantzitsuan zabaltzeko dauden oztopo nagusietako bat da bertan lan egiten dutenei bizi maila egokia eskaintzeko zailtasuna. Hau gainditzeko modu bat zera litzateke, baldintzarik gabeko oinarrizko errenta bat onartu eta abian jartzea. Honen alde egiteko arrazoiak normalean justizia sozialeko printzipio berdinzaleak izaten dira, baina kapital metaketako soberakin sozialeko zati bat metaketa sozial deienezakeenera transferitzeko bide bezala ere har genezake, langile/ekoizleei bizi maila egoki bat eskainita ekonomia sozialeko elkarteek gaineko presioa arinduz. Horrela azkartu egingo litzateke botere sozialaren zabaltzea ekonomia sozialaren bidez.

BOTERE SOZIALAREN ARAZOAK

Azaldutako bost bide hauek dira teorikoki botere soziala, ekoizpen eta banaketa ekonomikoaren gaineko kontrol eraginkor bihurtzeko modu nagusiak. Botere sozialak bost bide horietan aurrera egin ahala, sozialismorantz ari gara aurreratzen. Badira, jakina, ezkortasunerako arrazoi sendoak, gizarte zibilean errotutako botereak ekoizpen eta banaketarako baliabideen esleipena kontrolatzeko izan dezakeen antolaketa gaitasunarekiko. Bi arazo dira batez ere kezagarrienak. Lehendabizi, gizarte zibil dinamiko batean elkarte, sare eta komunitate heterogeneo asko dago, helburu desberdinen bila eta elkartasun mota desberdinekin; ez dirudi oinarri on bat sistema ekonomiko konplexu bat kontrolatzeko behar den botere mota sendorako. Bigarren, gizarte zibil barruko borondatezko elkarteek artean interes kontrajariak dituzten eta pribilegioak gorde nahi dituzten asko daude: badago NAACP (beltzen aurrerapenaren aldeko elkarte nazionala) baina badago Ku-Klux-Kan-a ere. Azken mota horretako elkarteek boterea emateak kapitalismoaren kalteak arintzen duela eta gizakiaren askapenean lagungarri dela sinistu behar dugu?

Lehen oztopoa arrazoitzat hartuta, sozialismoari buruz hemen azaltzen dugun ideiak ez du bat egiten anarkismoarekin. Kapitalismoa gainditzeko ikuskera anarkistan gizarte zibilaren borondatez koordinatutako jarduera kolektiboak lor dezake berez koherentzia maila nahikoa ordena eta gizarte jarraipena bermatzeko Estatuaren beharrik gabe. Sozialismoak, aldiz, Estatuaren beharrezana aldarrikatzen du, joko arauak eta koordinazio mekanismoak finkatzeko botere nahikorekin, horiek gabe gizarte zibileko botere kolektiboak ezingo luke Estatua edo ekonomia kontrolatzeko beharrezkoa den integrazioa lortu. Ekonomia kapitalista batek Estatu kapitalista behar duen bezala botere ekonomiko kapitalistaren jarduera iraunkorrerako baldintzak bermatzeko, eta ekonomia estatista batek Estatua behar duen bezala gutxieneko koherentzia bermatzeko, ekonomiaren gaineko botere sozialeko prozesu jasagarriek Estatu sozialista bat behar dute.

Bigarren oztopoa, asmo askatzaile berdinzaleen asmoekin bat ez datozen gizarte zibileko elkarte asko egotea kezkarriagoa da, bazterketa eta zapalkuntza gordetzen dituen sozialismo baten mehatxua dakarrelako. Ez dago bermatuta gizarte zibilaren boterea nagusi den gizarte batean hala-beharrez asmo demokratiko eta berdinzale sakonak mantenduko direnik. Hau, ordea, ez da arazoa sozialismoarentzat bakarrik, erakunde demokratiko guztien ezaugarria baizik. Kontserbadoreek esan ohi dute demokraziak barnean daramala gehiengoaren tiraniarako aukera, baina errealitatean demokrazia liberalek nahiko arrakasta izan dute norbanakoen eta gutxiengoen interesak babesteko erakundeak sortzen. Demokrazia sozialista batek ere antzeko erronkei egin beharko die aurre: demokrazian eta elkarteetan boterean sakontzen duen erakundetze bat pentsatu, asmo demokratiko, berdinzale eta askatzaile sakonak sustatzeko. Ez dut esaten botere sozialean oinarritutako sozialismo batek halabeharrez arrakastaz gaindituko duela erronka, baina botere sozialaren bidean aurrera egiteak leku hobean jartzen gaitu asmo horien aldeko borrokan, kapitalismoak edo estatismoak baino.

V. Eraldaketa

Botere soziala handitzeko bost bide hauetako proposamen utopiko errealean multzoak ez du biltzen kapitalismotik harantzagoko gizarte batek behar duen guztia. Beste eraldaketa instituzional asko beharko lirateke ekoizpen bideen jabetza kolektiboaren asmoa zeharo gorpuztuko lukeen ekonomia sozialista indartsu baten eraikuntzarako, zer esanik ez egitura ekonomikoaren alorretik kanpo ere asmo askatzaile demokratiko eta berdinzaleak gauzatu daitezkeen gizarte bat egiteko. Hala ere, aztertu dugun erakundetzeko proposamen multzo hori praktikan jarritz gero modu serio eta xehetuan, kapitalismoa asko aldatuko litzateke. Proposamenetako batzuk, bakarka hartuz botere soziala handitzeko bidean xumeak iruditu arren, batera hartuta klase harreman kapitalisten eta bertan errotutako botere eta pribilegio egituren funtsezko aldaketa suposatuko lukete. Jarduera ekonomikoa gidatuko luketen botere harreman nahastuen osaketako parte izaten segi lezake kapitalismoak, baina kapitalismo azpiratu bat izango litzateke, Estatuaren eta ekonomiaren demokratizazio sakonak ezarritako muga barruan aritzera behartuta.

Asmo utopiko errealean inbentario hau ezin da gaurko baldintza sozial eta politikoeekin gauzatu. Alternatiba desiragarri eta bideragarriak dira baina orokorrean ez dira egingarriak gaur egun. Egingarritasuna eragile sozialen boterea eta hauek jardungo duten baldintzen araberakoa izango da. Kontu hauen ulermena lantzea da gizarte zientzia askatzailearen hirugarren zeregin orokorra: eraldaketaren teoria.

Eraldaketaren teoria baten gako nagusia hau da: kontutan hartuta gizartearen birsorkuntza prozesuak, prozesu horren gorabeherak eta aldaketa sozialerako etorkizuneko aurreikusi gabeko ibilbideek aldaketa askatzailearen aukerarako sortutako oztopo eta aukerak, zein estrategia kolektibo motak lagunduko digu gizarte askapenaren bidean aurreratzeko? Historikoki asmo demokratiko, askatzaile eta berdinzaleen aldeko borrokak oinarritzko hiru eraldaketa moduren inguruan bildu dira, botere sozialeko erakunde berriak eratzeko aukera emanda: haustura, sinbiosia, zirrikitua.

Hausturek gaurko moduekin eta egitura sozialekin bizkor apurtuz sortu nahi dituzte botere sozialeko erakunde berriak. Ideia orokorra da konfrontazio zuzenak eta borroka politikoak errotiko banaketa bat sortuko dutela eta egoera horretan gaur arteko erakundeak suntsituko eta berriak eraikiko direla denbora oso laburrean. Sozialismorako bidea egiteko iraultza egoera bat planteatzeko da: herri indarren garaipen erabateko eta orokorrak, dau den egitura ekonomikoen eraldaketa bizkor bati ematen dio bide. Hausturazko aldaketak ez dira iraultzetara mugatzen, ordea. Erakunde multzo jakin batzuei eragin diezaiekete eta ez sistema sozialaren oinarriei; partzialak ere izan daitezke eta ez orokorrak. Ideia nagusia da bat bateko etena eta aldaketa bizkor bat, epe luzeko aldaketa geldo baten orde.

Zirrikituaren eraldaketa botere sozial era berriak eraikitzen saiatzen da gizarte kapitalistaren bazter, tarte eta zirrikituetan, ustez eta aginteko klase eta eliteentzat berehalako mehatxurik suposatzen ez duten haietan normalean. Gizarte zibilean gehien barneratzen dena da, eta sarritan ikusezina kapitalismoaren kritiko zorrotzenentzat. Zirrikitu estrategiak, gizarte sozialerako anarkisten planteamendu batzuen erdigunean egon arren, eta nahiz eta tokiko ekintzaile askoren egunerokoan toki handia hartu, sozialista iraultzaileek sarritan mespretxatu egin dituzte horrelako saiakerak gaitza goxatu baino ez duelako egiten edo azalekoa baino ez delako, statu quo-ari erronka serioa planteatzeko aukera seniorik gabe. Hala ere, horrelako eraldaketek handitu ahala jendearen bizimoduan errealki eragiteaz gain,

gizarte osoan eraldaketa esparruak zabaltzeko osagai ezinbestekoa izateko aukera daukate gutxienez.

Sinbiosi eraldaketetan, herri botere sozialaren erakundetzea zabaldu eta sakontzean, aginteko klase eta eliteek dituzten hainbat arazo praktiko ere konpontzen dira. Estatu kapitalistaren demokratizazioa, adibidez, presio adostuen eta hasieran aginte kapitalistarentzat arriskutsu jo ziren herri borroken emaitza izan zen. Botere sozialaren zabaltzea erreala izan zen, ez bakarrik itxurazkoa, baina kapitalisten eta beste elite batzuen interesak trabatzen zituzten arazoak konpontzen ere lagundu zuen, kapitalismoa egonkortzen lagunduz. Sinbiosi eraldaketek, beraz, nortasun kontraesankorra daukate, aldaketa instituzionalen epe motz eta luzeko eraginen arteko tentsioaz baliatzen direlako: epe motzean botere sozialeko modu sinbiotikoak aginteko klase eta eliteen aldekoak izaten dira; epe luzera, botere oreka botere sozial zabalago baten aldera eraman dezake.


Hiru eraldaketa mota hauek jarrera mota desberdinak iradokitzen dituzte eraldaketa politikoari buruz. Hausturaren eraldaketak, gutxienez bere modurik muturrekoenean (Estatua suntsitu), uste du gizarte birsorkuntzarako erakunde nagusien erabilera eraginkorra helburu askatzaileetarako ez dela posible, suntsitu eta zerbait berri eta zeharo desberdinarekin ordezkatu behar direla. Zirrikituaren eraldaketa (ez ikusiarena egin Estatuaren aurrean) mundu zaharraren barruan gutxika ordezko zerbait sortzen saiatzen da. Une batzuetan indarrean dauden erakundeak baliagarri gerta daitezkeen arren, zirrikituaren eraldaketek alde batera uzten dituzte botere gune nagusiak. Sinbiosi eraldaketa (Estatua erabili) birsorkuntza sozialeko erakunde nagusietan aldaketa askatzaileak ezartzeko moduak bilatzen saiatzen da, Estatuan bereziki, sorturiko forma nahastu berriak atzera ezin bota izango direlako esperantzaz, botere sozial askatzailearentzat gero eta esparru zabalagoa bilatuz.


Estrategia guztiek dituzte arazoak. Batek ere ez du bermatzen arrakasta. Guztiek gordetzen dituzte arriskuak eta zalantzak. Une eta leku desberdinetan bata edo bestea eraginkorragoa gerta daiteke, baina normalean batekin bakarrik ez da nahikoa izaten. Sarritan ekintzaileek aukera estrategiko bat bere-bere egin, betirako eta denerako baliagarritzat jo, eta indar larregi galitzen dute beste ereduak arbuiatzen. Arrakastaren aukera izateko epe luzeko proiektu batek estrategia hauek batera erabiltzeko modua bilatu beharko luke, nahiz eta horrek sarritan borroka desberdinak elkar gurutzatuko direla esan nahi.

XXI. mendearen hasiera honetan ezkortasuna nagusi da botere sozialeko sozialismo baten etorkizuneko aukerei buruz; baina garrantzitsua da kontutan hartzea mundu guztian ari direla saiakerak egiten proposamen horiekin. Saiakerak daude, erakunde berriak ari dira sortzen etengabe (suntsitzen ere bai, zoritxarrez) gizarte kapitalistaren zirrikitueta, eta noizean behin berrikuntza sozialaren prozesuan Estatuak lagun dezakeen garaipen politikoak ere gertatzen dira. Etengabe ari dira sortzen botere sozialeko modu berriak. Ez dakigu zeintzuk izan daitezkeen saiakera partzial eta sakabanatu horien mugak, kapitalismoaren barruko berrikuntzena ere ez: gerta daiteke botere soziala azkenean ertzetara mugatuta gelditzea, edo aukera tarte handiagoa izatea. Baina ziurra da oraindik ez garela muga horietara iritsi.

Alternatiba askatzaileen gainean etengabe hausnartzea posiblearen mugak zabaltzeko prozesuaren parte da. Gaur urruneko aldaketa bideragarri baten ideia baino ez dena, behar bada proiektu politiko koherente bihur daiteke. Kapitalismoaren barruan botere soziala zabaltzeko saiakerak eginez gerta daiteke zabalpenen ugaltze batera iristea eta behar bada azkenean hura gainditzea.









INSPIRAZIOAK
S A I L A